

EUSKARA TITULUAK ETA ZIURTAGIRIAK. BALIOKIDETZAK

297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Baturatuko mailekin parekatzeko dena

Dekretu honen bitartez, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiri ezberdinen arteko baliokidetzak ezarri, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Baturatuko mailekin parekatzen dira. Kolore bera duten titulu eta ziurtagiriak baliokideak dira.

Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Baturatua	B-1 maila	B-2 maila	C-1 maila	C-2 maila
86/1997 Dekretua	HAEEn 1. hizkuntza eskakizuna	HAEEn 2. hizkuntza eskakizuna	HAEEn 3. hizkuntza eskakizuna	HAEEn 4. hizkuntza eskakizuna
Kultura sailburuaren 2003-08-06ko Agindua	HABEn 1. mailako ziurtagiria	HABEn 2. mailako ziurtagiria	HABEn 3. mailako ziurtagiria	HABEn 4. mailako ziurtagiria
67/2003 Dekretua	Osakidetzako 1. hizkuntza eskakizuna	Osakidetzako 2. hizkuntza eskakizuna	Osakidetzako 3. hizkuntza eskakizuna	Osakidetzako 4. hizkuntza eskakizuna
30/1998 Dekretua		Ertzaintzako 1. hizkuntza eskakizuna	Ertzaintzako 2. hizkuntza eskakizuna	
Hezkuntza Sailaren 1982-04-22ko Agindua			Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	
297/2010 Dekretua			Nafarroako Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	

297/2010 Dekretua			Iparaldeko Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	
297/2010 Dekretua			Euskaltzaindiaren D agiria	
47/1993 Dekretua		Irakasleen 1. hizkuntza eskakizuna	Irakasleen 2. hizkuntza eskakizuna	
66/2005 Dekretua		Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA)		
297/2010 Dekretua	Hizkuntza Eskola Ofizialetako 3. maila (ikasketa plan zaharra)	Hizkuntza Eskola Ofizialetako 4. maila (ikasketa plan zaharra)	Hizkuntza Eskola Ofizialetako 5. maila edo euskal gaitasun maila (ikasketa plan zaharra)	
297/2010 Dekretua	Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako Tarteko Maila (ikasketa plan berria)	Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako Maila Aurreratua (ikasketa plan berria)	EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako menderatze operatibo eraginkorreko Gaitasun Maila (ikasketa plan berria), eta kanpoko Hizkuntza Eskola Ofizialek emandakoak	

86/1997 Dekretuko hizkuntza eskakizunak

86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko euskaraz beharrezkoa den gaitasun-maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntza eskakizuna dagokion (7. artikulua).

Baliokideak (41. artikulua):

4. Hizkuntza eskakizuna		
3. Hizkuntza eskakizuna	EGA eta baliokideak	Hezkuntza sistemako 2. HE
2. Hizkuntza eskakizuna	Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskarako 4. maila	Hezkuntza sistemako 1. HE
1. Hizkuntza eskakizuna		

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)

263/1998 Dekretua, urriaren 6koa, Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakaspostuetarako Hizkuntz Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituena.

Baliokideak (1. artikulua):

1. multzoa: EGA eta bere aurrekoak.
 - Euskaltzaindiaren D titulua.
 - Nafarroako Gobernuaren EGA agiria, eta Nafarroako Gobernuak bere aginte-esparruan finkaturik dituen EGAREN baliokideak.
 - Labayru Ikastegiko 3. mailako agiria (1982ko irailaren 19a baino lehen emana).
2. multzoa: EAeko eta Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialak.
 - EAeko hizkuntza eskola ofizialetako euskal gaitasun-maila.
 - Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizial Nagusiko euskal gaitasun-maila.
3. multzoa: euskal filologiako ikasketak.
 - Euskal Filologiako lizentziatura
 - Euskal Filologiaren alorreko irakasle-diplomatura.
4. multzoa: euskarazko irakasle-tituluak.
 - Bizkaiko Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1985ean edo handik aurrera lortua denean.
 - Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1985ean edo handik aurrera lortua denean.
 - Donostiako OHoko Irakaslegoaren Elizbarrutiko Irakasle Eskolan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1984an edo handik aurrera lortua denean.
 - Eskoriatzako OHOrako Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1984an edo handik aurrera lortua denean.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lau irakasle-eskolotako tituludunei baliokidetzak hori aitortu ahal izateko, EHAAk zehazten duen tramitazioa (1984/6/26ko Aginduaren lehen atala, 1984/7/9ko EHAAn, eta 1985/3/4ko Aginduaren lehen atala, 1985/5/8ko EHAAn) edo bere orde ezartzen dena burutu behar dute kasuan kasuko irakasle-eskola horiek.

5. multzoa: Hizkuntz Eskakizunak.

-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren irakasleen 2. Hizkuntz Eskakizuna (HE2) (azterketa bidez lortua denean).

-EAEko Administrazio Orokorreko 3. Hizkuntz Eskakizuna (HE3) (azterketa bidez lortua denean).

Irakasleen hizkuntza eskakizunak

263/1998 Dekretua, urriaren 6koa, Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakaspostuetarako Hizkuntz Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituena.

Baliokideak (2. artikulua):

Irakasleen 2. hizkuntz eskakizuna	EGA eta bere baliokideak
Irakasleen 1. hizkuntz eskakizuna	EAEko hizkuntza eskola ofizialetako euskal ikasketen 4. maila

Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA)

66/2005 Dekretua, apirilaren 5koa, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunak sortu eta arautzen dituena.

Dekretuko 4. artikulua araberak, HLEA hizkuntz eskakizuna ondokoei zuzenduta dago: Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen lanpostuei, hainbat kategoriatan banatuta baitaude (Hezkuntza-laguntzarako Espezialistak, Materialaren Transkribatzaile eta Egokitzaileak, Fisioterapeutak, Gizarte-langileak eta Lan-terapeutak).

Baliokideak (Xedapen Iragankorra):

-HBLEM (Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila) ziurtagiria duten pertsonen HLEAduntzat hartuko dira.

-HLEA baino goragoko euskara ziurtagiria dutenek, hala nola Hezkuntzako HE2dunek, EGAdunek eta ziurtagiri baliokidedunek, ez dute HLEA lortu behar, maila hori eskatzen duten lanpostuak betetzeko.

Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria

Ebazpena, 2002ko ekainaren 5koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskarako errektoreordearena, gobernu batzarrak 2002ko maiatzaren 23an hartutako erabakia argitaratzeko dena. Izan ere, erabaki horren bidez onartu zen Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria eskuratzeko arautegia.

Baliokideak (Bederatzigarren xedapena):

- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).
- Euskaltzaindiaren D titulua.
- Nafarroako Gobernuaren EGA agiria (eta Nafarroako Gobernuak bere aginte esparruan finkaturik dauzkan EGAREN baliokideak).
- Labayru Ikastegiko 3. mailako agiria (1982.eko irailaren 19a baino lehen emana).
- EAEko hizkuntza eskola ofizialetako euskal gaitasun maila.
- Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizial Nagusiko euskal gaitasun maila.
- Euskal Filologiako lizentziatura.
- Euskal Filologiaren alorreko irakasle diplomatura.
- UPV / EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 1985ean edo handik aurrera euskaraz egindako irakasle diplomatura.
- UPV / EHUko Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan 1985ean edo handik aurrera euskaraz egindako irakasle diplomatura.
- Donostiako OHoko Irakaslegoaren Elizbarrutiko Irakasle Eskolan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1984an edo handik aurrera lortua bada.
- Eskoriatzako OHOrako Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1984an edo handik aurrera lortua denean.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren irakasleen 2. Hizkuntz Eskakizuna (HE 2) (azterketa bidez lortu bada).
- EAEko Administrazio Orokorreko 3. Hizkuntza Eskakizuna (HE 3) (azterketa bidez lortu bada).

Osakidetzako hizkuntza eskakizunak

67/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzea.

Baliokideak (28. artikulua):

Osakidetzako 4. hizkuntza eskakizuna	HAEEK egiaztatutako 4. HE		
Osakidetzako 3. hizkuntza	HAEEK egiaztatutako 3. HE	EGA eta baliokideak	Hezkuntza-sistemako HE2

eskakizuna			
Osakidetzako 2. hizkuntza eskakizuna	HAEEK egiaztatutako 2. HE	Hizkuntza Eskola Ofizialaren 4. maila	Hezkuntza-sistemako HE1
Osakidetzako 1. hizkuntza eskakizuna	HAEEK egiaztatutako 1. HE		

Ertzaintzako hizkuntza eskakizunak

30/1998 Dekretua, otsailaren 24koa, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duena.

Baliokideak (5. Xedapen Gehigarria):

Ertzaintzako 1. hizkuntza eskakizuna	Euskal administrazio publikoen 2. HE
--------------------------------------	--------------------------------------

Justizia Administrazioko hizkuntza eskakizunak

174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa.

Hona hemen zein gaitasun maila baloratuko diren, euskaraz jakitea meritutzat jotzen denean, edota eskatuko diren, bereiztutako lanpostuetarako euskaraz jakitea eskatzen denean (4.3 artikulua):

- Laguntza Judizialeko kidegoan: 2. hizkuntza eskakizuna.
- Izapidetze Prozesal eta Administratiboko kidegoan eta Laborategiko Laguntzaileen kidegoan: 2. hizkuntza eskakizuna.
- Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko kidegoan: 3. hizkuntza eskakizuna.
- Auzitegiko Medikuen kidegoan: 3. hizkuntza eskakizuna.

Aipatutako euskara-mailak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritako mailekin.

HABEko ziurtagiriak

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak, Helduen Euskalduntzearen oinarritzko curriculumean ezarritako euskararen ezagutza maila egiaztatzeko sistema zehazten du (2003-09-10eko EHAA).

Aginduko 2. artikulua arabera, ondorengo mailak egiazta daitezke:

-Lehenengo maila.

-Bigarren maila.

-Hirugarren maila.

-Laugarren maila.